

## ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA

### Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

#### Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

5.828

**Diputatuen Kontseiluaren 619/2000 ERABAKIA**, irailaren 19koa, zeinaren bidez, Aldundi honek, parte hartzen duen zenbait erakundetako ordezkariak Arkitektura eta Hirigintza Zuzendaritzari ematen baitizkio.

Arabako Foru Aldundiak hainbat organismo, sozietate eta erakundetan parte hartzen du bere jarduera publikoan aritzen delarik.

Agintaldian zehar, kasuan kasuan, Aldundiak horietan duen ordezkari berritu edo osatu beharra interesgarria izaten da, eta horregatik, segidan aipatzen den erakundean aldaketa egitea edo berriak izendatzea dagokio orain.

Horren ondorioz, Diputatu Nagusiak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko egunez egindako bilkuran eztabaidatu ondoren,

#### ERABAKI DUT:

**LEHENA.** - Sociedad Anónima de Gestión de Centros Históricos-Arabarri S.A. (Erakundeen Erregistroko 81 zenbakia) sozietatearen batzar orokorrari zera proposatzea: administrazio kontseiluan Arabako Foru Aldundiaren ordezkari aldatzea, M<sup>a</sup> Concepción Fernández Ordoño andrearen ordezkari Santiago Fernández-Villa Sánchez jauna, Hirigintza eta Arkitektura Zuzendaria izendatuta.

**BIGARRENA.** - Segidan aipatzen diren erakundeetan aldaketa egitea, M<sup>a</sup> Concepción Fernández Ordoño andrearen ordezkari Santiago Fernández-Villa Sánchez Hirigintza eta Arkitektura Zuzendaria ipinita:

- Euskal Autonomi Erkidegoko Lurralde Antolaketa Batzardea (Erakundeen Erregistroko 84 zenbakia).
- Euskal Autonomi Erkidegoko Lurralde Antolaketa Batzardea-Hirigintza Planeamenduko Atala (Erakundeen Erregistroko 68 zenbakia).
- Arabako Hirigintza Batzardea (Erakundeen Erregistroko 80 zenbakia).
- Ondasun Higiezinak Erabili eta Xedatzeari buruzko Batzardea (Erakundeen Erregistroko 90 zenbakia).
- Euroa Ezartzeari buruzko Foru Batzardea (Erakundeen Erregistroko 70 zenbakia).

**HIRUGARRENA.** - Erabaki honek hartu orduko izango du eragina, baina horrek ez du kentzen Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko irailaren 19a.- Diputatu Nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Diputatu Nagusiaren Idazkaritza Teknikoko Zuzendaria, LUIS VIANA APRAIZ.

5.865

**634/2000 ERABAKIA**, irailaren 19ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Bernedoko udal-barrutian Ondasun Higiezinaren Zergaren menpeko hiri lurzoruaren zedarriztapena partzialki aldatzea onartu da.

Ekainaren 20ko 461/2000 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onartu zen Bernedoko udal-barrutian Ondasun Higiezinaren Zergaren menpeko hiri lurzoruaren zedarriztapena partzialki aldatzea.

Aipatutako lege-arauaren xedapen-zatiko 4. artikulua Bernedoko Udalarri horren berri emateko agintzen zuen; jakinarazpen hori 2000ko ekainaren 21ean bidali zen eta 2000ko ekainaren 23an eman zion sarrera Bernedoko Udalak.

Jakinarazpena egin ondorengo hamabost eguneko epea igaro da, foru agindu horren 4. artikuluan xedatutakoarekin bat, eta

### Disposiciones y Resoluciones Administrativas

#### Acuerdos del Consejo de Diputados

5.828

**ACUERDO 619/2000, de 19 de setiembre, del Consejo de Diputados, que otorga diversas representaciones al nuevo Director de Urbanismo y Arquitectura en Organismos en los que esta Diputación Foral participa.**

La Diputación Foral de Álava en el desarrollo de su actividad pública participa en diferentes Organismos, Sociedades o Entidades.

A lo largo de la legislatura interesa renovar o completar, en cada caso, los representantes de la Diputación en los mismos por lo que procede, en los que se señala, su sustitución o designación.

En su virtud, y a propuesta del Diputado General y previa deliberación en el Consejo de Diputados en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

#### ACUERDO:

**PRIMERO.** - Proponer a la Junta General de la Sociedad Anónima de Gestión de Centros Históricos-Arabarri S.A. (número 81 del Registro de Entidades) el cese de doña M<sup>a</sup> Concepción Fernández Ordoño como representante de la Diputación Foral de Álava en el Consejo de Administración de la misma, así como su sustitución por don Santiago Fernández-Villa Sánchez, Director de Urbanismo y Arquitectura.

**SEGUNDO.** - Sustituir a doña M<sup>a</sup> Concepción Fernández Ordoño por don Santiago Fernández-Villa Sánchez, Director de Urbanismo y Arquitectura en los siguientes organismos:

- Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco (número 84 del Registro de Entidades).
- Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco-Sección de Planeamiento Urbanístico (número 68 del Registro de Entidades).
- Comisión de Urbanismo de Álava (número 80 del Registro de Entidades).
- Comisión de Uso y Disposición de Bienes Inmuebles (número 90 del Registro de Entidades).
- Comisión Foral para la Implantación del Euro (número 70 del Registro de Entidades).

**TERCERO.** - El presente Acuerdo producirá efectos desde el momento de su adopción sin perjuicio de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

En Vitoria-Gasteiz, 19 de setiembre de 2000.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- El Director de la Secretaría Técnica del Diputado General, LUIS VIANA APRAIZ.

5.865

**ACUERDO 634/2000, del Consejo de Diputados de 19 de setiembre, que aprueba la modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Bernedo.**

Por Orden Foral número 461/2000, de 20 de junio, se aprobó con carácter provisional, la modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Bernedo.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Bernedo, disposición que se realizó con fecha 21 de junio de 2000, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Bernedo con fecha 23 de junio de 2000.

Habiendo transcurrido el plazo de quince días desde la notificación, tal y como se especifica en el artículo 4º de la referenciada

Bernedoko Udalak ez dio inolako eragozpenik jarri hartutako erabakiari.

Ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

#### ERABAKI DUT:

**LEHEN ARTIKULUA.**- Onartzea Bernedoko udal-barrutian Ondasun Higiezin Zergaren menpeko hiri lurzoruaren zedarriztapena partzialki aldatzea; honakoak jasoko dira: SAU-1 bizitegiatarako sektore urbanizagarriko 53.238 m<sup>2</sup>-ko eremu bat sailkatzea, Bernedoko erdiguneko mendebaldean, Lapuebla de Arganzónarako A-126 errepidean; Urarte herrian industrialdea handitzea; eta bizitegiatarako hiri sektorea handitzea, Urturiko landa lurzati bat sartuta, Planeamenduko Arau Subsidiarioei egindako aldaketekin bat. Ekainaren 26ko 427/1999 zenbakiko Foru Arauak, urriaren 29ko 754/1998 zenbakiko Foru Arauak eta otsailaren 21eko 226/2000 zenbakiko Foru Arauak onartu zituzten aldaketa horiek, hurrenez hurren.

**BIGARREN ARTIKULUA.**- Aurrekoa gorabehera, kontuan hartu behar da Ondasun Higiezin Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauaren 2. artikuluko b) idatz-zatiko 1, 2 eta 3. puntuetan ezarritakoa hiri izaerako eraikinek okupatu arren bizigunetatik kanpo dauden lurzoruei dagokienez.

**HIRUGARREN ARTIKULUA.**- Erabaki hau Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Lurralde Historikoaren gehien saltzen diren egunkarietan argitaratuko da. Gainera, jendaurrean jarriko da 15 eguneko epean, interesdunek egoki irizitako erreklamazioak aurkez ditzaten. Hain zuzen ere, Bernedoko Udalaren bulegoetan jarriko da ikusgai, halaxe ezartzen baitute Ondasun Higiezin Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauaren 2. artikuluan 5. paragrafoak eta horren arautegia garatzen duen abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 080/1992 zenbakiko Foru Dekretuaren 7, 8 eta 9. artikuluek.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko irailaren 19a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

#### Foru Arauak

### NEKAZARITZA ETA INGURUMEN SAILA

5.923

**551/2000 FORU AGINDUA, irailaren 26koa, zeinaren bidez epea eta lekua ezartzen baitira mahastiak berregituratu eta birmoldatzeko planen 2000-2001 kanpainarako eskabideak aurkezteko.**

Europako Batasuneko Kontseiluaren maiatzaren 17ko 1493/1999 zenbakiko (EE) Arautegiak mahats eta ardogintzaren antolaketa ezartzen du; horren ondorioz, alor horri dagokion barne legeria aldatu behar izan zen, komunitatearen araudi berriari egokitzearren. Mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko Espainian jarraituko den erregimena ezartzen da araudi horretan, merkatuaren antolaketan komun berria oinarri hartuta. Horrek bakarkako edo taldeko planak egiteko aukera ematen du, baina taldekoak suspertuko dira, helburu amankomunak dituzten ekoizleen elkartzea sustatzearen, horrela beren produktuak hobeto merkaturatzeko baliagarriak izango zaizkien egiturazko hobekuntzak lortuko baitituzte. Horretarako, planek bete behar dituzten gutxienezkoak ezartzen dira, mahastien azalera, taldekideen kopuruari eta berregituratutako lurzatiaren ezaugarri dagokienez; betetako neurrien barruan eman daitezkeen laguntzak ere ezartzen dira.

Horren guztiaren ondorioz, Estatuko Administrazioak abuztuaren 4ko 1472/2000 Errege Dekretua onartu du mahats eta ardo ekoizpenaren potentziala arautzeko, Konstituzioaren 149.1.13 artikuluan ezarritakoaren babespean.

Eusko Jaurlaritzak oraindik ez du onartu autonomia erkidego honetan erabili beharreko araudi orokorra eta, bestetik, aipatu errege dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako epeak bete

Orden Foral, el Ayuntamiento de Bernedo no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

#### ACUERDO:

**ARTICULO PRIMERO.**- Aprobar la modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Bernedo, recogiendo: la clasificación de un área de 53.238 m<sup>2</sup> del Sector Apto para Urbanizar Residencial SAU-1 situado al oeste del núcleo de Bernedo, en la Crtra. A-126 de Lapuebla de Arganzón, ampliación de la Zona Industrial en el pueblo de Urarte y ampliación del Sector Urbano Residencial, incluyendo una parcela rústica en el pueblo de Urturi, de conformidad con las modificaciones realizadas a las Normas Subsidiarias de Planeamiento aprobadas por Orden Foral número 427/1999, de 26 de junio, por Orden Foral número 754/1998, de 29 de octubre y Orden Foral número 226/2000, de 21 de febrero respectivamente.

**ARTICULO SEGUNDO.**- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

**ARTICULO TERCERO.**- El presente Acuerdo será publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Bernedo, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral número 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

Vitoria-Gasteiz, a 19 de septiembre de 2000.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- El Diputado Foral del Departamento de Hacienda Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

#### Ordenes Forales

### DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y MEDIO AMBIENTE

5.923

**ORDEN FORAL 551/2000 de 26 de septiembre, por la que se fija plazo y lugar de presentación de solicitudes para la campaña 2000-2001 de planes de reestructuración y reconversión de viñedo.**

El Reglamento (CE) número 1493/1999, de 17 de mayo del Consejo de la Unión Europea por el que se establece la organización del mercado vitivinícola hizo necesario modificar la legislación interna existente en esta materia y adecuarla a la nueva normativa comunitaria. Dicha normativa establece la implantación del régimen de reestructuración y conversión del viñedo que se aplicará en España en base al desarrollo de la nueva organización común de mercado, permitiendo la realización de planes individuales y colectivos, incentivando estos últimos con el fin de fomentar la agrupación de productores con objetivos comunes que les permitan alcanzar mejoras estructurales que faciliten la mejor comercialización de sus productos. A este fin se fijan los mínimos que deben cumplir los planes, tanto en lo que se refiere a las superficies de viñedo, número de integrantes y características de las parcelas reestructuradas, así como las ayudas que se podrán conceder dentro de las medidas ejecutadas.

Como consecuencia de lo anterior la Administración del Estado, al amparo de lo dispuesto en el artículo 149. 1. 13ª de la Constitución, ha aprobado el Real Decreto 1472/2000, de 4 de agosto, por el que se regula el potencial de producción vitivinícola.

Dado que a la fecha el Gobierno Vasco tiene pendiente la aprobación de la normativa marco que ha de regir en esta Comunidad Autónoma y la preteritoriedad de los plazos establecidos en la dis-